

## **2021eko UZTAILAREN 27ko BILKURA ARRUNTA** **LEHEN DEIALDIA**

Artzibarko udaletxean, bi mila eta hogeitabateko uztailaren hogeita zazpiko hamabietan, Artzibarko Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko, legean agindu bezala, eta lehen deialdian.

MAHAIBURUA: Alkate-Udalburua CARLOS OROZ TORREA

BERTARATUAK: Zinegotzi hauek:

Maria Isabel Cañada Zorrilla  
Juan Jose Echavarren Salvador  
Garoa Gartziandia Agirrezabala  
Francisco Javier Erro Ramirez  
Carlos Iriarte Iraceburu  
Clara Ruiz de Gauna Borreguero

Ezin etorri izana adierazi du: Garoa Gartziandia Agirrezabala  
Clara Ruiz de Gauna Borreguero

Idazkaria: Mainer Muguiro Perez

Alkate-udalburuak bilkurari hasiera eman ondoren gai zerrendako gaiiei ekin zaie, hona hemen:

### **1.- Aurreko bilkuretako aktak irakurri eta onestea.**

2021eko maiatzaren 25ean egindako osoko bilkura arruntaren akta ez da irakurri zinegotziek alde zurretik haren fotokopia jaso dutelako, bilkura honetako deialdiarekin batera. Alkate udal buruak galdetu du zinegotziren batek aurreko bilkuren aktari oharpenik egin nahi dion. Inork ez du ezer esan eta bozketa egin ondoren akta aho batez onetsi da eta bertan izan ziren guztiek sinatu dute.

### **2.- Jakinarazpen ofizialak Osoko Bilkuraren ezagumendurako**

- Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren 29E/2021 Ebazpena, "Pirinioetako toki-erakundeei dirulaguntza ematekoa, Pirinioetako Planarekin lotutako ekintzak

finantzatzeko”, udal-plan estrategikoa finantzatzeko.

- 28E/2021 Ebazpena, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuarena, Pirinioetako toki-erakundeentzako dirulaguntza ematen duena, Lurralde Garapen Iraunkorreko proiektuetan inbertsioak egiteko, karpak, eszenategia, mahaiak eta aulkiak erosteko finantzaketarako.

- 166/2021 Ebazpena, Kultura-Vianako Printzea Erakundeko zuzendariarena, Nafarroako Foru Komunitateko indusketa eta prospekzio arkeologikoen plana onartzen duena, Artziko 5. kanpaina barne hartzen duena.

-140/2021 Ebazpena, Toki Administrazioiko eta Despopulazioko zuzendari nagusiarena, Artzibarrek jaso beharreko zenbatekoa ematea eta ordaintzea onartzen duena, Nafarroako udalei 2021eko ekitaldiko udalkide-kopuruaren konpentsazio gisa.

- 109/2021 Ebazpena, Industria Antolamendu, Energia Azpiegitura eta Meategien Zerbitzuko zuzendariarena, aurretiazko administrazio-baimenarekin, 2021ean Artzibarren petrolio kanalizatuko gas likidotuaren sareak hedatzeko.

### **3.- Alkatearen ebazpenak Osoko Bilkuraren ezagumendurako**

Alkateak honako ebazpenen inguruko informazioa eman du, osoko bilkurak jakin dezan:

- Alkatetzaren 11/2021 Ebazpena, 2021eko maiatzaren 18koa, Artzibarko Udalak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzen duena Toki Administrazioiko eta Despopulazioko zuzendari nagusiaren martxoaren 17ko 53/2021 Ebazpenaren aurka.
- Alkatetzaren maiatzaren 25eko 12/2021 Ebazpena, zergadun batek bi ibilgailuren zirkulazio-zerga baliogabetzea erreklamatzeko duena, ibilgailu horiek 2018ko otsailean erre baitziren. Bi ibilgailuren 2018ko zirkulazio-zergari dagokion zorra baliogabetzea ebatzen da.
- 13/2021 Alkatetzaren Ebazpena, Saraguetako kontzejuko etxe batean ataripea egiteko obra-lizentziaren aldeko txostena ematen duena.

#### **4.- Auñamendi Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak Haur Eskolarako ekarpenari buruz egindako eskaera**

Ikusirik Aurizko Auñamendi Mankomunitateak igorri duen idazkia, Artzibarko familia batek Mankomunitateak kudeatzen duen Haur Eskolara seme/alaba emateko asmoa dutela adierazten baita. Hasiera batean ez dago ikasle horiek onartzeko arazorik, bai gurasoek zein Artzibarko Udalak ekonomikoki ordaindu behar dutena ordaintzeko konpromisoa hartuz gero.

Betebeharrak hauek dira:

- Gurasoek kuotak ordaindu behar dituzte, eta hala badagokie, jantokikoa baita; hori guztia familia unitatearen diru-sarreraren arabera.
- Artzibarko Udalarari dagokion kuota ordaintzera, ibarreko biztanle kopuruaren arabera (2020/01/01eko datuen arabera), eskolako urteko kostu osoaren banaketa egitea berari dagokion zatia hain zuzen ere; hori kalkulatzeko lehenengo gurasoek ordaintzen dutena eta Nafarroako Gobernuak jarritakoa kentzen dira.

Gaia eztabaidatu eta bozkatu ondoren, aho batez erabaki da:

**LEHENIK:** Heldu den urtean Eskolara joango diren ibarreko haurrei dagozkien betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko konpromisoa hartzea, hots, Artzibarko Udalarari egokituko zaion kuota ordaintzea; kuota hori biztanle kopuruaren arabera banatuko da, urteko kostu osotik gurasoek ordaindutakoa eta Nafarroako Gobernuak emandakoa kenduta gelditzen den zatiaren banatzetik sortua.

**BIGARREN:** Erabaki honen berri Aurizko Auñamendi Mankomunitateari jakinaraztea.

#### **5.- Gorraitz eta Usozko usategien enkanterako baldintza plegua onestea**

Ikusirik Usozko 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12 eta 13 usategien enkantea banan-banan egiteko baldintza plegua.

Ikusirik Gorraizko 33, 34, 35, 36, 37, 39 eta 40 usategien enkantea banan-banan egiteko baldintza plegua.

Osokok Bilkurak aho batez erabaki du:

**LEHENIK:** Usozko hamahiru usategien, banan-banan, eta Gorraizko zazpi usategien, banan-banan, ehiza-aprobetxamendurako enkante publikorako deia egitea, plegu itxi bidez eta denboraldi batez. Epe hori automatikoki luza daiteke, gehienez ere bost urtez. Eskaintzak 2021eko irailaren 2ko hamahiruak arte (13:00) aurkeztuko dira, eta proposamen ekonomikoak 2021eko irailaren 7ko hamahiruetan (13:00) Artzibarko Udalaren Osoko Bilkuren Aretoan egingo den ekitaldi publikoan irekiko dira, Udal honen Kontratazio Atarian eta Iragarki Oholean argitaratu ondoren.

**BIGARREN:** Adjudikazioa arautuko duten baldintzen plegua onartzea.

## **6.- Baso-jardueretarako diru-laguntza eskaera**

Ikusirik Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendari Nagusiak martxoaren 28an emandako 91/2019 EBAZPENAREN bidez toki entitateek eta eragile pribatuek sustatzen dituzten baso jardueretarako laguntzen araubideen oinarri arautzaileak ezartzen direla 2019/2020 epealdirako (2014-2020 LGPEko 04.03.05 eta 08.05.01 azpineurriak).

Ikusirik Lur Geroako Xabier Erbitik 2020ko urriaren 22an idatzitako proiektuan Azparren eta Urizko kontzejuetan eta Usozko dermioan lanak egiteko biltzen dela.

Aho batez erabaki da:

**LEHENIK:** 2021-2022 epealdian baso lanak egiteko dirulaguntza eskatzea, Lur Geroak proiektuan ezarri moduan eta deialdiarekin bat eginez.

## **7.- Udal plana prestatzeko erabakia**

Ikusirik Artzibarko Udalak, gaur egun, hirigintza-plangintza oso zaharra duela, eta hori eguneratzea komeni dela, gaur egun egiten ari diren erreformamota berriei erantzuteko.

Ikusirik Nafarroako Gobernuarekin hainbat kontsulta egin ondoren, ibarreko hirigintza-plan berri baterako proiektua gauzatzeak horren zati bat dirulaguntza baten bidez finantzatzea ekar dezakeela.

Osokok Bilkurak aho batez erabaki du:

**LEHENIK:** Artzibarko hirigintza-plan berri bat izapidetzen hastea eta, ahal izanez gero, proiektu hori finantzatzeko dirulaguntza eskatzea

## **8.- Alkatetzaren txostenak**

Alkateak honako informazioa eman du:

- Nagoreko bainu-eremua: Jakinarazi da 4 pertsona ari direla lanean bainu-eremuan eta komun kimikoak jarri direla. Jakinarazi da oraindik ez dagoela bainu-eremu hori arautzen duen ordenantzarik.
- Itoizko lan-mahaiaren bileran egin behar diren proiektuez aritu ziren, udalek jasoko dituzten konpentsazioez eta hirigintza kontribuzioaz. Bilera horretan aipatu zen Ebroko Ur Konfederazioak egiteke dauden bideak bukatuko dituela.
- Balorazio txostenaren batzorde mistoa. Jakinarazi da batzorde mistoaren bilera bat izan zela, eta bertan aztertu zirela balorazio-ponentziari 2020an egindako alegazio guztiak. Batzorde horren ondoren, berriz argitaratu da balorazio-ponentzia, alegazioak egin ahal izateko.
- Banda zabaleko internet. Jakinarazi da Sisnetek internet konexio berria jarri duela Arrieta eta Hiriberrin. Instalazio bera Gorraitzen nola egin aztertzen ari dira, Oroztik hurbil dagoenez antena bidez zuntz bidez egin ahal baita.

## **9.- Kide anitzeko organoetako eta bestelako ordezkarien informazioa**

Ibarreko Eguna. Jakinarazi da nola antolatuko den produktuen merkatua eta nolako neurriak hartu behar diren Covid dela eta.

Pirinioko Mahaia Jakinarazi da Pirinioko Mahaiaren barnean hainbat egitura sortuko direla eta bakoitzak bere helburuak izanen dituela.

## **10.- Eskaerak eta galderak.**

Ez dago

Eta gai gehiagorik ez zegoenez alkateak bilkura bukatutzat eman zuen hamalauak eta hogeita hamarrean, eta nik akta egin dut eta bertan zeudenek sinatu dute eta nik, idazkaria naizen aldetik, ziurtatu dut.